

**Beste saltoki bat du orain belaunaldi berrikoa****EROSKI-K 'ZUREKIN' EREDURA ALDATU DU  
IRUÑEKO SUPERMERKATU BAT**

- Supermerkatua berrituta, produktu sailak ugaritu egingo dira, eta kontsumitzaileak aukeratzeko askatasun handiagoa izango du; gainera, leku gehiago hartuko dute bertako produktuek eta sasoian sasoiko freskoek
- Denda osorik birmoldatzeko 380.000 euro inbertitu ditu, eta 19 profesionalak zerbitzua emango dute saltoki eraldatu berrian
- Kooperatibak Nafarroako 3.300 hornitzaile txiki baino gehiagoren 500 produktu inguru saltzen ditu, eta 220 milioi euroren erosketak egiten dizkie haiei urtean

Iruñea, 2019ko uztailaren 11.- [EROSKI](#)k Iruñeko beste supermerkatu batean jarri du Zurekin eredu komertziala, belaunaldi berriko denden gidaria. Hain zuzen, Izaba kaleko 16.ean dagoen supermerkatuan. Oso eredu lehiakorra da, eta kontsumitzaileek estimu handitan dute. Hori dela eta, sare komertzial osoa eredu horretara birmoldatzen ari da kooperatiba. Hauek dira haren oinarritzko ezaugarriak: bezeroarenganako arreta pertsonalizatuagoa, tokian tokiko produktuen eta sasoiko produktu freskoen aldeko apustu indartsua, elikagai osasungarrien promozioa eta dirua aurrezteko modu berriak eguneroko erosketan. Eraldaketa horrekin, EROSKIk proposamen komertzial berri bat egiten die azotarrei, zeina orain arte Caprabo markarekin jarduten baitzen.

EROSKIk 380.000 euro inbertitu ditu hura eraldatzen, eta 19 langileko taldea izango du. Langileek prestakuntza jakin bat jaso dute, bezeroari arreta pertsonalagoa eman diezaioten eta dendan lan egiten duten taldeek beren autogestioan sakondu dezaten.

Supermerkatuak 800 metro koadrotik gorako salmenta aretoa du, eta produktuen gama zabalduko du, kontsumitzaileei aukera askatasun handiagoa emateko, fabrikatzaile liderren, marka propiokoen eta bertako ekoizleen 5.000 produktuko sortarekin. Bezeroek arreta pertsonalizatua izango dute harategian, urdaitegian eta arrandegian. Horretaz gain, janari freskoen eskaintza zabala izango dute; batez ere, sasoian sasoiko bertako frutak eta barazkiak eta Nafarroako produktu tipikoak. Okintzako eta opilgintzako produktuak ere izango dituzte, labe propioan egin berriak.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarririk behinena. Markaren bezero-bazkideen harremanerako programa da, eta %15eko deskontuak eskaintzen ditu 2.500 produktutan baino gehiagotan, baita sustapenak,

**EROSKI**Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

berariazko eskaintzak eta Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 180.000 nafar baino gehiago kooperatibaren Bezero-Bazkideak dira, eta EROSKI clubaren abantailak eskura dituzte dagoeneko.

### **Tokian tokiko produktuak, dendako protagonistak**

Belaunaldi berriko EROSKI dendak freskoetan espezializatuagoak daude; salgai kopurua igo dute, eta janari horietako asko tokikoak eta sasoikoak dira. "*Tokian tokiko produktuek garrantzi handia hartu dute 'Zurekin' ereduan. Nekazaritzako elikagaien sektoreari laguntzen diogu iraunkorragoa eta ugaritasun handikoa izan dadin; izan ere, gure dendak eskualdean ekoizten diren janariak merkaturatzeko plataforma irekiak dira*", esan du EROSKI iparraldean dituen Supermerkatuetako zuzendariak, Edorta Juaristik.

Kooperatibak Nafarroako 3.300 hornitzaile txiki baino gehiagoren 500 produktu inguru saltzen ditu, eta 220 milioi euroren erosketak egiten dizkie haiei urtean. Tokiko elikagai freskoen salmenta %44 handitu zaio EROSKIri Nafarroan 2016tik hona, eta elikagaien salmenta orokorra %39 baino gehiago. Horrez gain, nabarmentzekoa da %43 igo dela esnekien salmenta, batez ere EROSKI gama berriko esnea atera duelako; erabat Nafarroako esnea da, eta Esne Produktu Iraunkorraren zigilua du.

Bestalde, EROSKI %42 igo du tokiko elikagaien salmenta Nafarroan joan deneko bi urtean. Gehienbat haragien sektorean igo da, %89. Nabarmentzekoa da nolako bultzada eman dioten EROSKI *Natur* markarekin saltzen diren bi produktuk, Nafarroako Aratxea AGBaren abelgorri haragiak batetik, eta Nafarroako Reyno Gourmet zigiluaren oilaskoak bestetik.

### **Elikadura osasungarriaren promozioa**

EROSKI, [Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak dituen konpromisoen harira](#), lan handia egiten ari da elikadura osasungarria sustatzeko: Elikadura Ekologikoa eta Dietetikoa izeneko atal berria du, eta zabaldu egin du elikagaiekiko intolerantziak dituztenen eta beren elikadurarekin sensibilizatuta daudenen produktu sorta; honako hau eskaintzen du, besteren artean: glutenik gabeko elikagaiak, azukre gutxikoak, gatz gutxikoak...

Era berean, saltoki berriak azken berrikuntza teknologikoak dakartza efizientzia energetikoa hobetu eta ingurumenean duen eragina gutxitzeko.

### **EROSKI Nafarroan**

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Nafarroako elikagaien banaketan. 111 saltokiko sare komertziala du Foru Erkidegoan; besteren artean, hipermerkatu eta supermerkatu propio nahiz frankiziatuak, eta dibertsifikazio dendak; horietaz gain, 'on line' supermerkatua ere badu; alde horretatik, bakarra da erosketak Nafarroako edozein etxetara eraman ditzakeena.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)